

## AURKIBIDEA

Helbideak eta telefonoak .....	1
- Aurkezpena .....	2
- Hizkuntz Normalkuntzarako Proiektuaren aurkezpena (HNP) eta Eskola Agenda 21 (EA21).....	3
- Egutegia .....	5
- Irakasletoa.....	6
- Bisita orduak eta haurtzaindegi zerbitzua.....	7
- Lan taldeak eta proiektuak.....	8
- H.N.P.ko jarduerak .....	9
- Jarduera osagarriak.....	10
- Haur Hezkuntzako arautegia (H.H.) .....	11
- Lehen Hezkuntzako arautegia (L.H.).....	12
- Eskolako Osasun Taldea.....	13
- Eskola aseguruia eta laguntza medikoa.....	14
- Jantokia.....	15

## HELBIDEAK ETA TELEFONOAK

- Haur Hezkuntza.- M. Menéndez y Pelayo 23  
94 433 22 98
- Lehen Hezkuntza.- Iturriaga 58  
94 411 11 81  
e-mail.- 014126aa@hezkuntza.net  
www.santutxu.net
- Guraso Elkartea.-
  - 94 412 02 22 – 634 45 03 90
  - apa.luisbrinas@gmail.com
- Jantokiko arduraduna.- 675 705 791

Guraso agurgarriak:

Aurreko urteetan bezala aurtengo ikastetxearen gida ematen dizuegu. Bertan 2008-2009 ikasturteari buruzko informazioa ahalik eta zehatzen aurkezten saiatu gara.

Ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntzarako Proiektuan sakonduz (HNP), informatikari dagokionez zentroko ekipamendua hobetzen eta eguneratzen (PREMIA) eta Eskolako Agenda 21 proiektuari segida emanez, garapen jasagarria landuko dugu. Horrez gain, kurtso honetarako badugu Hizkuntza Indartzeko Proiektuaren Irakaslea (HIPI), hizkuntza beharrak indartzeko zuzenduta. IKT Proiektu berria (Informazio eta Komunikazio Teknologia) aurten eratuko da.

Ikasturte honetan ere aurreko urteetan lehendabiziz izan zen legez eskolako zuzendaritza arduratuko da Eskola Jantokiko kudeaketaz Eusko Jaurlaritzaren babespean.

Hale ere, zuen seme-alaben irakasleekin izango duzuen bileretan argituko dizkizuegu izan ditzakezuen zalantza guztiak.

Orain eskuratzen duzuen gida hau zuen gustokoa eta baliagarria izango zaizuelakoan gure agurrik beroena.

Zuzendaritza Taldea

Bilbon, 2008ko iraila.

## **HIZKUNTZ NORMALKUNTZARAKO PROIEKTUA (HNP)**

### **BAI EUSKARARI**

Beste hainbat ikastetxetan bezala, LUIS BRIÑAS-SANTUTXUn ere aurrera daramagu Hizkuntza Normalkuntzarako Programa, HNP alegia, hezkuntza-ziklo guztietan (Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan).

Honen bidez zera lortu nahi dugu: euskal hizkuntza eta kulturarekiko interesa sortaraziz eta ikasleak motibatuz erabilera bultzatu, epe luzera ikasleen artean giro euskalduneko taldeak sortzeko.

Helburu hau aski konplikatu da, batez ere oro har erdaldundua den gurea bezalako auzo batean, funtsezkoa da kolektibo guztien arteko koordinazioa eta laguntza (ikasleak, gurasoak, irakasleak eta langile ez irakasleak).

Euskararen etorkizunak gure parte hartze aktiboa eskatzen du, eta gauza asko egin ahal dugu:

1. Euskara erabili gure inguruko euskaldunekin.
2. Geure hizkuntza etengabe zaintzen eta hobetzen ahalegindu.
3. Euskara etxetik kanpo erabiltzera animatu.
4. Euskarazko jokuak, liburuak... oparitu.
5. Euskaraz egin ahal dituzten ekintzetan partehartzea aholkatu.

Kontutan izan umeak esna dagoen denboratik %17a eskolan igarotzen duela. Denbora labur horretan euskaraz arituko da. Beraz euskara hizkuntza behikularra da, hau da, beraren bidez ikasgai guztiak ikasiko ditu. Horregatik ahal bait arinen barneratu behar du euskara. Gure ahalegin guztiek berme ezin hobea, are gehiago ezinbestekoa dute zuen laguntzarekin.

### **ESKOLA AGENDA 21 (EA21)**

EA21 ikasleok iraunkortasunetik abiatuta ikastetxe eta hauen inguruko ingurumen kalitatea hobetzeko egindako ingurumen ekintza programa da.

Hau lortzeko hiriko ingurumen alderdi bat aztertzen dugu ikasturtean zehar eta gure ikastetxe eta auzoko egoeraren diagnostikoa egiten dugu. Hori kontuan izanda hobekuntza ekintzak zehaztu eta martxan jartzen ditugu. Hiriaren ingurumena hobetu ahal izateko Udaletxeari ekintza proposamena luzatzen diogu.

Bilboko EA21ean 2007-08 ikasturtean 50 ikastetxe baino gehiago gabiltza Bilbo iraunkorrago bat lortzeko konpromisoarekin.

Aurten jorratuko den gaia garapen jasangarria izango da: Ura, erabilera eta kudeaketa.

## **INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIO TECNOLOGÍA IKT PROIEKTUA**

Ikastetxeen heldutasun teknologiararen ereduari esker, honako hauek lor daitezke:

- Ikastetxeen diagnostiko zehatza egoera teknologikoa dela eta.
- Aurrez ikusitako maila lortzeko egin beharrezko hobekuntza bidea

Horren guztiaren ikuspegia pedagogikoa eta kudeaketazkoa da, eta hezkuntza arloko eragile guztiak ditu hartzaile: ikasleak, irakasleak eta familiak..

Ikastetxearen heldutasun teknologikoaren ereduari esker, ikastetxeko prozesuak zenbateraino digitalizatuta dauden neurtu eta teknologien, prozesuen eta hezkuntza arloko eragile guztien gaitasunen alorrean zer ildori jarraitu behar zaion finkatu egin daiteke.

### **HIZKUNTZA INDARTZEKO PROIEKTUA (H.I.P.I.)**

Hizkuntza indartzeko proiektuaren bidez laguntza eskaintzen diegu eskolan berriki sartutako ikasle etorkinei. Euskal hezkuntza sisteman orain dela gutxi sartu direnez, laguntza berezia behar dute trebetasun linguistikoak lortzeko, eta haien maila dagokien curriculum bereganatzeko.

*Besteak beste, hauek dira proposatzen diren helburuak:*

- Euskara ez dakiten ikasle etorkinei berriazko laguntza ahalbidetzea, hizkuntza eta komunikazio trebetasunak eskuratzeko bitartekoak emanez.
- Ikasle horiek euskal hezkuntza sisteman sartzen laguntzea, eskolan eta gizartean lehenbailehen eta ahalik eta baldintza onenetan integra daitezen lortzeko.
- 

Proiektu honen bidez gure eskolak, gizarteak egun duen kultura-aniztasunari erantzun egokia emango dio, gure kulturaren balioak garatuz, eta, aldi berean, eskola kulturen arteko dimentsiora irekiz.

IRAILA / SEPTIEMBRE

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

URRIA / OCTUBRE

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		



AZAROA / NOVIEMBRE

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

ABENDUA / DICIEMBRE

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

URTARRILA / ENERO

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

OTSAILA / FEBRERO

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

2008-2009

IKASTURTEA

MARTXOA / MARZO

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

APIRILA / ABRIL

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

MAIATZA / MAYO

					1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30	31	

EKAINA / JUNIO

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

1. Ebaluaketa: abenduak 5
2. Ebaluaketa: martxoak 18
3. Ebaluaketa: ekainak 22

IKASTURTE  
HASIERAKO BILERAK

HAUR HEZKUNTZA

- 2 URTE: urriak 2
- 3 URTE: urriak 7
- 4 URTE: urriak 15
- 5 URTE: irailak 24

LEHEN HEZKUNTZA

- 1. MAILA: urriak 8
- 2. MAILA: urriak 6
- 3. MAILA: irailak 25
- 4. MAILA D2: irailak 23
- 4. MAILA D1: urriak 9
- 5. MAILA: irailak 29
- 6. MAILA: irailak 30

# IRAKASLEGOA

## HAUR HEZKUNTZA

- 2 urte D1 Izaskun Escauriaza  
Laguntzailea.- Itoitz Berrioategortua  
2 urte D2 Marian Alday  
Agurtzane (Laguntza)  
2 urte D3 Yolanda Rivas  
Susana (laguntza)  
3 urte D1 Jose A. Lagardera  
3 urte D2 Inma Hurtado  
3 urte D3 Marian Erkiaga  
4 urte B Patxi Suárez/Ainara  
4 urte D1 Mila Merino  
4 urte D2 Inés Bolaños  
5 urte B Araceli Perojo  
5 urte D1 Ixabel Guarido  
5 urte D2 Ana Eva Munilla

## LEHEN HEZKUNTZA

- 1.B Saioa Capetillo  
1.D1 Paqui Roda  
1.D2 Bego Lantarón  
2.B M<sup>a</sup> Tere Artetxe  
2.D1 Manoli del Río  
2.D2 Amelia Rabanera  
3.B Manuela Fernández  
3.D1 Fidel Villaño  
3.D2 Garbiñe González  
4.D1 Amaia Urrizelki  
4.D2 M<sup>a</sup> Luisa García  
5.B Estibaliz Martínez /Saioa  
5.D1 Luis Angel Villate  
5.D2 Mitxel García  
6.B Lutxi Fernández  
6.D1 Isabel del Río  
6.D2 Pilitxu Aspuru

## PERSONAL LABORAL EDUCATIVO

- Marta Abiega/Susana Hernández
- Aitziber Fernández
- Belen Quintana

## ATEZAINAK

- L.H.: Jesus Irurtia/Marta López
- H.H.: Bittor Eguireun

## IRAKASLE ESPEZIFIKOAK

### INGELERA:

- Jon Txasko: E. Infantil y Primaria
- Garbiñe Malaxetxebarria: E. Primaria
- Emi Alonso: E. Primaria

### GORPUTZ HEZKUNTZA :

- Andoni Arriaga
- Bego Arechaga

### H.I.P.I. (Hizkuntza Indartzeko Proiektuaren Irakaslea)

- M<sup>a</sup> Jose Pampín

### PEDAGOGÍA TERAPEUTIKA:

- Ilu Fernández
- María Alonso
- Esther Peña

### AHOLKULARIA:

- Inma Ibáñez de Maeztu

### MUSIKA:

- Irantzu Arnal

### LOGOPEDA:

- Ane Ugalde/Itziar Peña

### ERLIJIOA:

- Iratxe Barrasa: H.H.
- M<sup>a</sup> Luisa Coego: L.H.

### ADMINISTRAZIOA:

- Miguel Angel Palencia

### JANTOKIA:

- Mikel Baroja

### ZUZENDARIA:

- Yolanda Ruiz-Bravo

### IKASKETA BURUA:

- M<sup>a</sup> Asun Aizpurua

### IDAZKARIA:

- Inma Ibáñez de Maeztu

## **IRAKASTORDUAK**

Haur Hezkuntzan - Goizez: 9:15 - 12:45  
- Arratsalde: 14:45 - 16:15

Lehen Hezkuntzan - Goizez: 9:00 - 12:30  
- Arratsalde: 15:00 - 16:30

## **GURASOEN HARRERARAKO ORDUTEGIA**

- Haur Hezkuntzan: Hilaren lehenengo asteartean.
  - Lehen Hezkuntzan: Hilaren hirugarren asteartean goizez (12:30 - 13:30)
- Irakasleekin hitz egiteko premia baldin baduzue eta ezina bazaizue itxarotea, deitu telefonoz mesedez beste uneren batean elkarrekin egoteko.
- Edonola ere komenigarria da zuen etortzearen abisua aurretik izatea, beste gurasoekin batera ez etortzeko.

## **ZUZENDARITZAren BISITA-ORDUAK**

- Astelehenero 9:00etatik 10:00etara
- Asteazkenero 15:00etatik 16:00etara
- Ostiralero 11:00etatik 12:00etara

Komenigarria da zuen etortzearen abisua aurretik izatea, beste lagunekin batera ez etortzeko.

## **IKASLE GURASO ELKARTEA (I.G.E.)**

- **ASTE KULTURALA**
- **UDAKO KOLONIAK**
- **ESKOLAZ-KANPOKO EKINTZAK**
- **HAURTZAINDEGI SERBITZUA**

Ikasleen guraso elkarteak antolatuta duela bi urtetik hona haurtzaindegi zerbitzua dago lehen hezkuntzako ikasleentzat.

Zerbitzuaren ordutegia goizeko 8:00etatik 9:00etara ikasturtearen lehenengo egunetik lehen hezkuntzako eraikinean. Haur Hezkuntzan, 8:30etatik 9:15etara.

40 euroko fidantza utzi behar da ekainean familiak zerbitzuan izena ematen dutenean. Baja eman ezkerko fidantza galduko litzateke. Ikasturtea hasita norbaitek zerbitzua behar izan ezkerko onartuko dira ume gehien kopurua bete arte (30). Fidantza besteek bezala ordainduko beharko dute.

Prezioa monitorearen kostu osoa 9 kuotatan banatuko da. Bankuaren bidez pasako dira urritik maiatzera nahiz eta eskolara asistentziarik ez izan.

AMPA: 634.45.03.90.

## **LAN TALDEAK**

### **ZUZENDARITZA TALDEA**

- Zuzendaria: Yolanda Ruiz-Bravo
- Ikasketa Burua: M<sup>a</sup> Asun Aizpurua
- Idazkaria: Inma Ibáñez de Maeztu

### **ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAREN ARDURADUNA**

- Miguel Angel Palencia

### **JANTOKIKO ARDURADUNA ETA PREMIA PLANA**

- Mikel Baroja

### **PEDAGOGI KOORDINAKUNTZAKO BATZORDEA**

- Zuzendaritza taldea
- Jon Txasko: HHko Koordinatzailea:
- Manoli del Río: LHko 1. zikloko koordinatzailea
- Fidel Villaño: LHko 2. zikloko koordinatzailea
- Isabel del Río: LHko 3. zikloko koordinatzailea
- Inma Ibáñez de Maeztu: aholkularia.

## **PROIEKTUAK**

### **HIZKUNTZ NORMALKUNTZARAKO PROIEKTUA**

- Arduraduna: Luis Angel Villate

### **ESKOLAKO AGENDA 21**

- Arduraduna: Yolanda Ruiz-Bravo
- Bietako Batzorkideak:
  - Marian Alday
  - Irantzu Arnal
  - Manuela Fernández
  - Yolanda Ruiz-Bravo



### **HIZKUNTZA INDARTZEKO PROIEKTUAREN IRAKASLEA**

- Arduraduna: M<sup>a</sup> Jose Pampin

### **BESTELAKO PROIEKTUEN ARDURADUNAK**

- Irratia.- Pilitxu Aspuru
- Bertsolaritza.- Pilitxu Aspuru
- Antzerkigintza, Kantagintza eta IKE.- Luis Angel Villate
- IKT.- Mitxel García
- Liburutegia: Isabel del Río



## **H.N.P.ko JARDUERAK**

<b>JARDUERAK</b>	<b>ETAPA / ZIKLO / MAILA</b>
1.- Kantagintza	L.H.
2.- Antzerkigintza	L.H.
3.- Atsotitzak	H.H. eta L.H.
4.- Bertsolaritza	L.H.ko 6.maila, astean saio bat bertsolari batekin.
5.- IKE (jolastordu, jantokian eta sarreretan "Irrati txiki")	H.H. eta L.H.
6.- Irratigintza	L.H.ko 2.mailatik aurrera FM 106.9 (ostiralero 9:00etan)
7.- Eskola aldizkaria	H.H. eta L.H.
8.- OSPAKIZUNAK: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen eguna.</li> <li>- Olentzeroa.</li> <li>- Agate Deuna</li> <li>- Euskararen astea eta korrika</li> </ul>	H.H. eta L.H. Abenduaren 3an Abenduaren 19an Otsailaren 4an Martxoaren 30etik apirilaren 3ra.
9.- GIROTZEKOAK <ul style="list-style-type: none"> <li>- "Nagiak atera"-Megafoniaz euskal kantak jarri sarrera eta jolastorduetan</li> <li>- Irrati-saioak</li> <li>- Pasiloetan: denborapasak</li> </ul>	H.H. eta L.H.  L.H.
10- KIROLAK <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal kirolak ezagutu eta praktikatu</li> </ul>	L.H.ko maila guztietan.
11.- Idazleak eskolan, Ipuin kontalaria edota Irudigilea.	H.H. eta L.H.n lortu ahal diren mailetan.

## JARDUERA OSAGARRIAK

Garrantzitsuenak jakinarazten dizkizuegu:

JARDUERAK	ETAPA / ZIKLO / MAILA	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Inauteriak.</li> <li>- Kurtso amaierako jaialdia.</li> </ul>	Eskola osoa	<p>Otsailaren 20ean</p> <p>Ekainaren 23an</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Igeriketa</li> </ul>	Lehen Hezkuntza	<p><u>2. lauhilabeteko</u></p> <p><b>3.D1</b> eta <b>3.B</b> asteartero, 11:00etatik 12:00etara.</p> <p><b>3.D2</b> asteazkenero, 11:00etatik 12:00etara.</p> <p><b>4.D1</b> eta <b>4.D2</b> ostegunero, 11:00etatik 12:00etara.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bide heziketa</li> </ul>	Lehen Hezkuntza	L.H.ko3 .zikloa

### OHARRA

#### Heziketa Fisikoa.

Lehen Hezkuntzako talde batzuk (3. mailatik 6.era) Txurdinagako kiroldegira joango dira. Gainontzeko taldeek soinketa ikastetxean bertan egingo dute. Heziketa Fisikoaren ordutegian arropa egokia eta ilea bilduta beharrezkoa da ekartzea.

## **ELKARBIZITZAREN ARAUAK HAUR HEZKUNTZAN**

Eskolak ondo funtziona dezan oso garrantzitsua ikusten dugu arau batzuk errespetatzea.

Hori dela eta, hurrengo hauek kontutan hartuko ditugu:

1. Orokorrean, bai sarreretan zein irteeretan ere, ez gara ikastetxe barrura sartuko, aurretik ez badugu andereñoarekin hitzordua.
2. Andereñoarekin elkarrizketa izan nahi badugu, ordua eska diezaiokegu.
3. Ez dugu bileretara umerik ekarriko, martxa oztopatzen dute eta.
4. Gelan martxa ona lortzeko, guztiz beharrezkoa zaigu **EGUNERO ETA GARAIZ ETORTZEA**. Ezin badugu umea ekarri gaixo dagoelako, telefonoz emango diogu honen berri andereñoari eta bueltatzerakoan bai pertsonalki bai sinatutako ohar baten bidez justifikatuko dugu. Jantokiko bazkalkidea bada, zuzendaritzarekin ere hitz egin beharko da, 11:00etatik - 12:30etara. (☎675705791)
5. Haurrak irteteen ez dugu korroa itxiko, denok ondo ikusteko. Euria egitekotan  
3 urtekoak jantokiko atetik aterako dira, beste guztiak 2 eta 4 urteko ikasleen ohiko irteeratik, hain zuzen ere.
6. Ez dute jostailurik, dirurik ezta goxokirik ere ekarriko. Era berean euria egiten duenean, eramango duzue aterkia etxera.
7. Urtebetetzeetan ez ditugu poltsak eta goxokiak ekarriko. Patatak, gusanitoak, olibak... ekartzea hobesten dugu arratsalde denok elkarrekin "askaritzoa" egitea ahalbidetzen digulako.
8. **EZIN DA ERRE EGIN ESKOLAN, EZTA PATIOETAN ERE.**
9. **Guztiz debekatuta dago txakurrak jolastokian sartzea. (B.O.P.V. 135 zb. 2006 uztailak 14.)**
10. Umeak ateratzean txizalari badira ez ditugu sekula jolastokian ipiniko, komunera sar gaitzke eta.
11. Gure seme-alabak zorriak baditu, ez gara lotsatuko. Irakaslea ohartaraziko dugu eta Udalak emandako aholkuak beteko ditugu.
12. Zabuak eta ikastetxeko instalazio guztiak gureak izango balira bezala zainduko ditugu eta azalduko diegu seme-alaba haundiei ez direla haiek erabiltzeko.

**GARRANTZITSUA: IRAKASTORDUA AMAITU AURRETIK UMEA ESKOLATIK ATERA BEHAR BADUGU, LEHENAGO ANDEREÑOARI JAKINAREN GAINEAN IPINIKO DUGU.**

## **ELKARBIZITZAREN ARAUAK LEHEN HEZKUNTZAN**

Nahiz eta denok ezagutu garrantzitsuenak gogorarazi nahi ditugu:

1. Sarreretan eta irteeretan ez gara ikastetxe barruan sartuko, aurretik ez badugu irakaslearekin hitzordua.
2. Hileko hirugarren asteartetik kanpo irakaslearekin elkarrizketata izan nahi badugu erabili kurtso hasierako bileran azaldutako bidea edota telefonoz deitu.
3. Gelan martxa on bat izateko, guztiz beharrezkoa zaigu EGUNERO ETA GARAIZ ETORTZEA. Umea ezin bada etorri gaixorik dagoelako, telefonoz emango diogu horren berri irakasleari eta eskolara itzultitakoan sinatutako ohar baten bidez justifikatuko dugu. Jantokiko bazkalkidea bada, zuzendaritzarekin ere hitz egin beharko da, 11:00etatik 12:30etara.
4. Sarrerak eta irteerak erosoago izan daitezen, mesedez EZ GELDITU PASABIDEAN.
5. ESKOLAKO LEKU GUZTIETAN DEBEKATUTA DAGO ERRETZEA.
6. Guztiz debekatuta dago, txakurrak patioan sartzea. **(B.O.P.V. 135 zb. 2006 uztailak 14.)**
7. Gure seme-alabak zorriak baditu, ez gara lotsatuko. Irakaslea ohartaraziko dugu eta Udalak emandako aholkuak beteko ditugu.
8. Ikastetxeko instalazio guztiak gureak izango balira bezala zainduko ditugu.
9. Egunero klaseak jarraitzeko egokiak eta beharrezkoak diren materialak ekarriko ditugu. Heziketa fisikoa egiteko jantzi egokiak jantzita eta ilea batuta etor daitezela.
10. Ez da jostailu elektronikorik ezta telefono mugikorrik eskolara
11. Komunak zabalik egongo dira arratsaldeko 16:30etatik 17:00etara.

**OSO GARRANTZITSUA: IRAKASTORDUA AMAITU BAINO LEHEN UMEA ESKOLATIK ATERA BEHAR BALDIN BADUGU, AURRETIAZ ESANGO DIOGU IRAKASLEARI ZUEK SINATUTAKO OHAR BATEN BIDEZ ETA EZINBESTEKOA DA UMEAREN BILA ETORTZEA.**

## UDALEKO OSASUN TALDEA

Ikasturte honetan eskolako taldea honako hau izango da:

- Sendagilea: Marina Etxebarrieta
- Erizaina: Javier Caturla

Ikastetxean betetzen duten ordutegia:

- Asteartero goizez sendagilea eta ostegunero goizez erizaina

## OSASUN TALDEAREN JARDUERAK

- Ikusmen azterketa haur hezkuntzako 3 eta 4 urteko umeei.
- Audiometriak lehen hezkuntzako lehen mailako ikasleei.
- Osasun azterketak lehen hezkuntzako lehen mailako ikasleei.
- Osasun azterketa bereziak lehen hezkuntzako 5. mailako ikasleei.
- Desabantaila sozialean dauden umeen kontrola eta jarraipena.
- Gaixoberak (osasun azterketetan antzemandako asaldurak) izan daitezkeen umeen kontrola eta jarraipena.
- Eskola botikinaren gainbegiraketa.
- Eskolaren egoera higieniko-sanitarioaren aldizkako kontrola.
- Eskolaren jantoki eta sukaldeen kontrola. Menuen kontrola Bilboko udalaren nutrizio unitatearekin batera.
- Osasun heziketarako jarduerak (eskaeraren arabera):
  - Aho eta hortz osasunerako egitaraua.
  - Irakasleen jokamoldea (atalase eta sakontze mailak).
  - Gurasoen eskola (atalase eta sakontze mailak)
  - Elikadura eta nutrizioa.
  - Norberaren higieena.
- Eskaeren araberrako kontsultak ikasle, guraso, irakasle eta irakasle ez diren langileei.
- Eskola abarrarekin zer ikusia duten erakunde eta elkarteekiko koordinazioa.

## **ESKOLA-ASEGURUA ETA LAGUNTZA MEDIKOA**

### • **ESKOLA-ASEGURUA:**

Aseguru etxea MUTUA GENERAL DE SEGUROS da. Haur Hezkuntzako ikasleak aseguratutik daude. Lehen Hezkuntzan, jantokian geratzen direnentzat eta eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen dutenentzat ezinbestekoa da.

Asegurua edukitzeak dakar aseguruako medikuak **beti** aztertu behar duela umea. Hala ez bada, ospitalera eramaten baduzue aseguruako medikuak aztertu gabe, istripua eskolan gertatu dela esan ezkeru Osakidetzak faktura pasako dizue.

### • **LAGUNTZA MEDIKOA:**

Ikasleren batek **istripurik** izanez gero honela arituko gara:

#### - **Ikaslea ASEGURATURIK BALDIN BADAGO:**

Aseguruako medikuari (OSALAKETA laguntza medikoa) telefonoz deituko diogu eskolara etor dadin. Gehienetan, ikastetxean bertan sendatuko dituzte ikasleak, baina Ospitalera eramatea beharrezkoa ikusiko balu, Klinikara eramango luke. Orduantxe telefonoz deituko genizueke hara joateko, zuen seme-alabak horrela lasaiago egoten baitira. Horregatik edozein telefonoren zenbaki aldaketaren berri eman behar diguzue, edo telefonorik ez baduzue konfidantzako pertsonaren batena.

#### - **Ikaslea ASEGURATURIK EZ BADAGO:**

Basurtuko Ospitalera eramango genuke eta une horretan abisatuko genizueke zuek ere hara joateko. Gurasoek lekualdaketaren ordaina egin beharko dute. Eskola aldian ikasleren bat gaixotzen bada, bere bila etortzeko deituko dizuegu. Zuen etxeetan inor ez egotekotan ez genieke inongo kasuan joaten utziko, nahiz eta etxeko giltza izan.



## ***ESKOLA JANTOKIA***

### **1.- ANTOLAKETA OROKORRA**

Astlehenean, irailaren 8an, eskola-jantokia hasi zen. Ikasturte honetan 179 egun izango dira.

Ordainketa hilearen hasieran helbideratzearen bidez (inolako gasturik gabe) izango da:

- **68,62 €ko bderatzi hileko kuotak** (irailaren 8tik ekainera  
179 egun x 3,45 € eguneko)
- **64,78 €ko bederatzi hileko kuotak** (irailaren 22tik ekainera  
169 egun x 3,45 € eguneko)

**Kuotak ez ordaintzeagatik eta jantokiko arauak ez betetzeagatik jantokirako lekua galduko da.**

Eskola Kontseiluko Jantoki-batzordeak erabakiko du nori kendu jantokirako lekua.

### **Menuak:**

Menuak ikastetxean bertan prestatuko dira..

Bazkaltiar guztiek menu bera jango dute. Nolanahi ere, menu edo dieta bereziak onartuko dira, janari-alergia edo antzeko arazoak direla eta, medikuaren txostenak hala gomendatzen duenean. Txosten horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: menuaren ezaugarriak eta betebeharrak, baita bazkaltiarrek jasan ezin duen janaririk ustekabeen hartuz gero erabili edo jarraitu beharreko protokoloa ere.

Hilero orri batean menuak azalduko zaizkizue eta bai jantokietan bai iragarki-taulan ipiniko dira.

## **Ohiko bazkaltiarrek:**

Ohiko bazkaltiarren hartua izateko, ikasleek **ikasturteko egunen %80an** erabiliko dute jantokia, gutxienez.

Ikasturtea hasi eta gero jantokia erabiltzen hasten diren bazkaltiarren kasuan, ohiko bazkaltiarren joko dira baldin eta une horretatik jantokiko zerbitzu amaiera bitarte geratzen diren egunen %80an, gutxienez, erabiltzen badute.

Ohiko bazkaltiarren diren ikasleek halakotzat eman beharko dute izena; eman ere, jantokiari buruzko behin betiko datuak Sailera igortzeko epea amaitu baino lehenago, **urriaren 17an**, hain zuzen ere.

Datuak Sailera bidaltzeko epea amaitu ondoren, ondoko kasu bi hauetan baino ez dira onartuko ohiko bazkaltiarren inskripzio berriak:

- a) Jantokiko batzordeak edo OOGren batzorde iraunkorrak "ohiko bazkaltiar" berriak onartu ahal izango ditu, Sailak ikasturte hasieran ezarritako begiraleen eta sukaldeko langileen ratioa guztiz bete arte.
- b) Behar bezala justifikatutako premiazko beharrezan izan, eta jantokiko batzordeak edo OOGren batzorde iraunkorrak hala eskatuz gero, Administrazio eta Dirubideen Zuzendaritzak baimena eman ahal izango du "ohiko bazkaltiar" berriak hartzeko.

**Noizbehinka geratzeko aukera** izango da Honetarako eskura izango dituzue **Lehen Hezkuntzako atezaintzan** (Iturriaga 58) eros daitezkeen **txartelak**

Zuen erosotasunarako 5 txarteletako multzotan salduko dira **20,00 €ko prezioan**, hau da, **4,00€ bakoitza**.. Horrela behar duzuenean, ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako sarreretan horretarako kokaturik dauden **postontzietan** sar ditzakezue ondo betez gero eta jakinarazi iezaiozue dagokizuen irakasleari.

Kurtso amaieran zuzendaritzan utz ditzakezue erabili gabeko txartelak dirua berreskuratzeko.

**Jantokira ez etortzekotan** arduradunari (Mikel) **675705791** esan beharko zaio **11:00 – 12:30** ordutegian. **Abisua eman den egunetik aurrera** deskontatuko da. Horretarako Jantokira gutxienez bi astetan falta izan beharko da.



Ikasle bazkaltiarrek Hezkuntza Sailaren jantokiko **bekarik jasotzen badu, ezin da inola ere ezer itzuli**

Aurreko arrazoiengatik egin behar diren deskontuak **ekaineko kuotan** gauzatuko dira. Jantokiko arduradunak interesatuei lehenago esango die.

Ikasleek ez dute eskolako esparrutik alde egiterik izango beraien guraso edo tutoreen **baimen idatzirik gabe**, jantokiko lan-pertsonalari eman beharko diote.

**Bazkalkideek Gurasoen elkarteek eskaintzen duten eskola-asegurua abonatu behar dute, ikastetxean bertan aseguruako medikuak sendatzeko.**

Edozein kontsulta, zalantza, iradokizun, kexa... jantokiko arduradunari zuzenduko zaio.

## **2.- JANTOKIAREN FUNTZIOAK**

Jantoki eskolarraren betebeharririk nagusia giza-laguntza eskeintzea da, dudarik ez. Hala eta guztiz ere, "Eskola jantokia" denez gero, heziketa lanari jarraipen ematen alhaleginduko gara. Beraz honetaz arduratuko gara:

- Eskolako Osasun Zerbitzuak aztertuko ditu menuak udalaren nutrizio unitatearekin batera.
- Bazkarietan goxokirik ez da egongo.
- Zaindarien umeei jaten dutenaren kontrola eramango dute.
- Gelako heziketari jarraipena eman.
- Euskaldun giroa.
- Poliki poliki garbitasun ohiturak lantzen hasiko gara.

### **3.- SUKALDEKO PERTSONALA ETA MONITOREAK**

- Hasieran 19 zaindari, 2 sukaldari eta 7 laguntzaile izango ditugu horrela banandurik:
  - Haur Hezkuntzan:
    - 13 zaindari
    - sukaldari 1
    - sukaldeko laguntzaile 2
  
  - Lehen Hezkuntzan:
    - 9 zaindari
    - sukaldari 1
    - 5 sukaldeko laguntzaile

Jantokiko martxa ona ez oztopatzeko bertan dauden langileak ez molestatzea eskatzen dizuegu.

**Edozein zalantza, iradokizun eta abar, jantokiko arduradunari zuzen diezaiokezue.**

Haur eta Lehen Hezkuntzan jaten duten ala ez jakiteari oso garrantzitsu deritzogunez, egunero **bazkaltzen EZ dutenei** ohartxo bat bidaliko zaie zer ez duten jan zehaztuz.

Ez baduzue ezer jasotzen, ondo bazkaldu dutela esan nahi izango du. Ez da beste inolako informe idatzirik egongo.

Aurretik jantokiko arduradunari ordua eskaturik, zaindaria prest egongo dira zuekin hitz egiteko.

Hala ere, guztiz beharrezkoa ez bada, ez erabili mesedez bide hau.